

ARAZOAK

BIZIAREN ALDE

GAURKO ARAZOA

Aspaldion izan gara arduraz, noiz agertuko ete dan zarrak eta osatu-eziñeko gaisoa daukenak iltea eskatzen dauan ekintza.

Lentxuago be izan dira olako eskari batzuk gure artean, baiña girorik ez eukelako, oiartzun aundirik be ez dabe izan.

Baiña oraingo onetan bai, ainbat tokitatik entzuten da eskari au, "eutanasia" edo eriotz egokia eskatzen dauan oiua. Orain ez dira erdi alboratuta dagozan talde batzuk, gizon serioak osotzen dabezan lege-batzarrak baiño.

ALEGIÑAK

Gaurko mundu aurkazale onetan, iñon diran alegiñak egiten dira, alde batetik, biziari eusteko, gaisorik dagozanak osatzeko naiz gaiso-bidea bera alboratzeko.

Alegiñak baita, bizi garanok erosoago bizi gaitzean, biziaren ontasuna edo "kalidadea" arduraz begiratzen dala.

Eta olako alegiñak poztu egiten gaitue, geutzat eta besteentzat laguntza lez ikusten doguzalako.

AURKAKO JOKABIDEAK

Baiña aurkalaria dan gaurko mundu onek ba-daukaz aurkako jokabideak be, bizia indartu bearrean, bizia kentzeko diranak.

Esaterako, ainbeste ilketa alperreko egiten dauan, izukeria, edo oraindiño laterri askotan kendu barik dagozan errotzarako epaiak, edo gaisorik txarrena baiño txarragoa dan laterri askotako gose-giroa, edo drogea edo alkoola.

Alde batetik biziaren alde eta beste batetik bizia galtzen dabil gaurko mundua.

JAIO-BAKOAK

Iñok ez dau jakingo iñoz zenbat direan jaio baiño lenago, gizonen jokabide okerragaitik, eriotzea aurkitzen daben umeak, baiña bai, urtero milloiak dirala.

Sartu dira biziaren bidera, ba-datoz euren jokabiderako egitaraua aldean dakarrela, eta edo lekurik ez dagoalako, edo ama lotsa dalako, edo janaririk ez dagoala diñoelako, edo munduan gizaki larregi garalako eritxia dagoalako, edo beste zio askogaitik, jaiobako errukarriak eskuetan dauken bizia galtzen dabe.

Jokabide zuzenagoa litzake, sortu baiño lenago artu bear diran bideak artzea, bizia daukanarr kentzea baiño.

ERIO TZ EGOKIA

Orain biziaren aurkako jokabide barri bat asi da zabaltzen: Eriotz egokia esaten jakona.

Osagilleak alegiña egiten dabe gaisoaren bizia luzatzen, bear ba'da alegin larregi. Ordu batzuk edo egun gitxi batzuk bizia luzatzearen, zenbat neke ta min arrazoten jakozan gaisoari. Bere etxetik atera eta gaiso-etxeetara eroan, iñon diran tramankuluak, iñon diran osagaiak eta ebaketak... eta dana bizia apur bat luzatzeko. Or sarritan izan leiteke eriotz egokia itzaroteko kasua: Etxean, seni-deak inguruan dirala, bake-bakean, ilteko eskubidea.

Baiña eriotz egokia edo "eutanasia" esaten jakonak ba-dau beste urtenbide oker bat: Osatzerik ez daukan gaisoari, berak eskatuta edo eskatu barik, eriotzea ezartzea. Ez da bardin bakean ilten iztea eta ordua baiño lenago eriotzea ezartea. Jokabide bildurgarria litzake au.

GAM IZ' EK